

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Garbiñe Jauregizar Ugalde

*Bermeo,
Bizkaia
(1913-2016)*

Aurkibidea



Biografia



1913. urtean sortu zen [Nardiztar Jon](#) kalean, baina [Aroztegi](#)n hazi zen. Gurasoak ere bermeotarrak izan zituen eta 9 neba-arrebako familia osatu zuten. Bere aitak 'Euzkadi'n idazten zuen lantzean behin eta mitinlari trebea zen. Umetan, karmeldarren ikastetxean ibili zen, eta, gero, Bilbora joan zen josten ikastera. Bilbon bertan ezagutu zuen gerora bere senarra izango zena. Gerra garaian, ahizparekin batera Bilbora, Santanderrera eta Frantziara joan zen ebakuatuta. 1941. urtean, Larrondora (Loiu) ezkondu zen; gerora, Sondikara joan zen bizitzera. 1948. urte hasieran, Venezuelara joan zen eta 9 urtez egon zen bertan. Hala ere, ez du bere jaioterriko berbaera galdu, oso ondo gorde baitu Bermeoko euskara.

Zintak

BRM-048

- **Proiektua:** Tximintx euskara elkarte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea - Zubiri, Itsasne
- **Data:** 2011-01-12
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

BRM-049

- **Proiektua:** Tximintx euskara elkarte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea - Zubiri, Itsasne
- **Data:** 2011-01-18
- **Iraupena:** 56 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Izen euskalduna izateagatik arazoak

- **Erref:** BRM-048/004
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:04:19. **Bukatu:** 00:06:23

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Denak izen euskaldunak familian. Arazoak izan zituzten horregatik; esaterako, Miren Gorane "Exaltación" eta Miren Garbiñe "Maria de la Purificación" bihurtu zituzten. Mojek beren izenez deitu izan diete. Atzerritik itzultzean izenaz galdetu ziotenean "Garbiñe" erantzun zuen.

2. Zigortuta ekitaldi frankistetara ez joateagatik

- **Erref:** BRM-048/005
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:06:23. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Ez ziren joaten gerra osteko ekitaldi frankistetara. Eskolan zigortu egiten zituzten horregatik.

3. Dotrina erdaraz eta euskaraz

- **Erref:** BRM-048/007
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:08:47. **Bukatu:** 00:09:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Jaunartzea mojetan egin zuen. Erdaraz ikasi zuten dotrina. Euskaraz nahi zuenak Santa Eufemiara joan behar zuen. Otoitzak euskaraz dakizki.

4. Olgetan

- **Erref:** BRM-048/009
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:11:00. **Bukatu:** 00:12:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Eguen arratsaldetan jai izaten zen eskolan, eta Mundakara joaten ziren olgetara. Udan, intxaurrak eta madariak harrapatzen zituzten baserrietan. Zinera joaten ziren, eta dantzara ere bai, Lamerara. Sokasaltoan ere ibiltzen ziren.

5. "Nork egin du dantzan", mojen galdera

- **Erref:** BRM-048/011

- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:14:54. **Bukatu:** 00:16:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Mojek dantzan nork egin zuen galdetzen zieten, eta norberak esaten zien, eskolakideren batek salatu baino lehen. Egun seinalatueta elizara ez baziren joaten zigortu egiten zituzten.

6. Eskolako kontuak

- **Erref:** BRM-048/013
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:18:20. **Bukatu:** 00:21:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Karmelitetan, ordaintzen zuten ikasleak eta ez zutenak zeuden. Bera bigarren multzokoa zen. Besteak uniformeaz janzen ziren. Josten eta brodatzen ere ikasten zuten. "Pizarriñe" (arbeltxoa) erabiltzen zuten idazteko. Urtean behin, udaleko agintariak etortzen ziren eskolara eta ondoen idazten zuena ateratzen zuten arbelera.

7. Zinemara Kasinora

- **Erref:** BRM-048/015
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:23:08. **Bukatu:** 00:25:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Kasinoan zegoen zinema-aretoa eta hara joaten ziren gaztetan. Mundakarrak ere etortzen ziren, eta gero dantzara joaten ziren Lamerara. Mahaspasak, kakahueteak eta horrelakoak hartuta joaten ziren zinera. Zine mutua zen orduan. Charlot, "Argala eta Lodixa" eta horien pelikulak ikusten zituzten. Gernikatik etortzen zen piano-jotzailea.</p>

8. Lameran eta plazan dantzan

- **Erref:** BRM-048/016
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:25:25. **Bukatu:** 00:27:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Udan, jaiegunetan eta eguenetan, Lameran egoten zen dantza, bandarekin.

Neguan plazan. Dantza lotuan zein librean egiten zuten, jo ta ke, nekatu arte. Umetatik ikasten zuten dantzan. Mutilak etortzen ziren dantza eske. Kalabazak ere ematen zituzten.

9. Dantzara joateko jantziak eta apaingarriak

- **Erref:** BRM-048/019
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:30:48. **Bukatu:** 00:33:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea

Laburpena:

Batarekin eta abarketekin joaten ziren dantzara udan. Neguan, zapata edo botekin. Guardasolpean ibiltzen ziren euria zenean. Ezpainak pintatzen zituzten. Betondoak belztu ere bai inoiz mistoekin (pospoloak). Makilatu, depilatu eta horrelakorik ez zuten egiten.

10. Aritzatxuko hondartzara

- **Erref:** BRM-048/021
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:34:00. **Bukatu:** 00:35:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:

<p>Aritzatxuko hondartzara joaten ziren. Abarketak bustita heltzen ziren etxera eta igarri egiten zieten. Bataz bainatzen ziren eta izaraz lehortzen. Geroagokoak dira bainu-jantziak.</p>

11. Tonpoira bainatzera

- **Erref:** BRM-048/023
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:36:12. **Bukatu:** 00:37:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:

<p>Bermeoko portuan ez zegoen bainatzerik. "Tonpoire" ere joaten ziren bainatzera. Ezkonduta gero ere bai. Baina gutxi joaten ziren. Berak ez zuen uger egiten ikasi, ahizpak osteria bai.</p>

12. Lapak eta musilak batu eta jan

- **Erref:** BRM-048/026
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:40:55. **Bukatu:** 00:42:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk
- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:

Lapak eta musilak bildu eta jaten zituzten, gordinik, hondartzan. Orain galduta ei daude. Nagusituta gero ezagutu zituzten bainu-jantziak.

13. Nazionalisten mitinetara

- **Erref:** BRM-048/029
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:46:14. **Bukatu:** 00:47:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Nazionalisten mitinetara joaten ziren bakarrik, aita ez zien besteetara uzten. Politxene izeneko emakume mitinlaria du gogoan. Batzokira joaten ziren sarri. Lameran zegoen orduan.

14. Antzerkia batzokian

- **Erref:** BRM-048/031
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:49:02. **Bukatu:** 00:51:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Aitak asko parte hartzen zuen antzerkietan. Bilbon ere antzeztu ei zuen behin, Coliseo Alban, "Peru gizon" obra egiten. Ia denak euskaraz egiten ziren. Denetariko obrak. Aratusteetan ere urtero egiten zen antzerkia.

15. Aita mugimendu abertzalean oso sartuta

- **Erref:** BRM-048/033
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:51:54. **Bukatu:** 00:53:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

<p>Aitak idatzi, mitinak bota eta denetik egiten zuen. Euzkadi egunkarian idatzi ere bai inoiz. Politikan sartuta egon zen. Sabino Aranarekin harremana zuen.</p>

16. Herritik ihesi, mairuen beldur

- **Erref:** BRM-048/035

- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:55:01. **Bukatu:** 00:57:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Beldurrez bizi izan zuten gerraren etorrera. Gurasoak herrian geratu ziren, baina bera eta ahizpa batek alde egin zuten. Bilbora joan ziren bapore batean. Zorabiatuta eta diruak galduta heldu ziren. Senargaia zuen Garbiñek Bilbon. Mairuen (moroen) eta italiarren beldur handia zegoen. Italiar mordoa ito zen Bermeon uholdeengatik.</p>

17. Bilbotik Santanderrera ihesi, Santandertik Frantziara

- **Erref:** BRM-048/039
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:01:21. **Bukatu:** 01:03:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Ezagun baten etxean egon ziren lehendabizi Bilbon. Gero handik Santanderrera, barkuz Frantziara, eta trenez oso urrun, uste du Italiako mugara. Bartzelona hartu arte egon ziren han. Ez zuten Kataluniara pasatu izan nahi.

18. Ondo hartu zituzten frantsesek

- **Erref:** BRM-048/040
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 01:03:22. **Bukatu:** 01:06:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Ondo hartu zituzten Frantzian, era guztietako laguntza jaso zuten jendearen aldetik. Dirurik ez, libreta bat zuten dendara janari bila joateko. Dendetan izaten zituzten komeriak hizkuntza dela eta.

19. Herriko postaria triste alde egin zutenean

- **Erref:** BRM-048/041
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:06:44. **Bukatu:** 01:07:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Postariak asko maite zituen. Eurak joanez gero, kaleak triste geratuko zirela esaten zieten. Negar egin zuen alde egin zuten egunean. Erabilitako arropak ematen zizkieten.

Jauregizar Ugalde, Garbiñe | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com